| | |
|---|---|
| | ***PARTE HARTZAILEEN* PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIEN PRESTAKUNTZA ESKURATZEKO BALDINTZAK**<br>(Nahiko izango da **eskakizunetako BAT** betetzea. Eskakizun bati ez zaio beste bati baino lehentasun handiagoa emango)<br>(Pertsona batek PU batean izen ematen duenean, ez du dokumentazioa aurkeztu beharko, aurrez prestakuntza-modulu bereko egindako eta gainditutako beste PU baten diploma aurkezten badu) |

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA |
|---|---|---|
| GAZTELANIAREN OINARRIZKO MENDERAPENA/AUKERAK<br>a) Ziurtagiri honen bidez baliozkotzea: HHE, HEO, Cervantes Inst., etab.<br>b) Gaztelaniaren oinarrizko proba (ikastetxeak berak egin eta zaindu beharrekoa) | a) DBHko titulua, sarbide-proba edo **baliokideak** (lanerako edo ikasketetarako) edo maila handiagoko titulazioak izatea: :<br>http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/cuadro_equivalencias_titulos_estudios_c.pdf<br><br>b) Prestakuntza behar bezala aprobetxatzeko prestakuntza- edo lan-arloan nahikoa ezaguera izatea. Baldintza hori **modu hauetakoren baten bitartez** egiazta daiteke:<br>➢ Administrazio eskudunek baimendutako ikastetxeek edo prestakuntza-entitateek luzatutako ziurtagirien bitartez, gutxienez 300 orduko 1. mailako edo goragoko prestakuntza ez-formala dutela dokumentu bidez justifikatzea, ikasi nahi duten Profesionaltasun Ziurtagiriari dagokion Lanbide Arloaren alorren batean.<br>➢ Lan-esperientzia bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak aitortzeko uztailaren 17ko 1224/2009 EDren 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lan-esperientzia eta/edo horri lotutako prestakuntza badutela dokumentu bidez justifikatzea.<br>➢ Eskuratu nahi duten prestakuntzaren maila bera edo handiagoa izanda, arlo berean eta lan-eremu berean gaitasuna ebaluatu eta egiaztatzeko tresnak onartutako gaitasun-unitate bat, gutxienez, izatea.<br>➢ Dagokion lanbide-arloarekin lotutako matematikako eta gaztelaniako gaitasun nagusiak badituela zehaztuko duen idatzizko azterketa gainditzea. Gaitasun horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko Gomendioan (2006/962/EE), Etengabeko Ikaskuntzarako gaitasun nagusiei buruzkoan, eta Hizkuntzen Erreferentziako Europako Marko Bateratuan (Lanbidek jarriko du proba eta zentroa arduratuko da gauzatzeaz eta zaintzeaz) ezarritako arloetan inspiratuta daude.<br>c) Eskuratu nahi duten profesionaltasun-ziurtagiriaren eta/edo prestakuntza-moduluaren edo -moduluen maila bereko profesionaltasun-ziurtagiria izatea.<br>d) Lanbide-arlo bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria izatea.<br>e) 25 eta/edo 45 urtez gorakoentzako unibertsitatean sartzeko azterketa gaindituta izatea.<br>f) Plaza libre egotekotan adierazitako eskakizunak betetzen dituzten pertsonak, baina beste autonomia-erkidego mugakide batekoak izan eta prestakuntza-ekintzan matrikulatzeko unean enplegu zerbitzuan izena emana dutenak.<br><br>Prestakuntzako edo lanbideko nahikoa ezaguera izatea justifikatzeko, gaztelerazko, ingelesezko eta frantsesezko dokumentazio atzerritarrak edo Atzerriko Arazoetarako eta Lankidetza Ministerioak baimendutako zinpeko itzultzaile batek itzulitakoak onartuko dira: (kontsultatu atzerriko tituluen eta itzultzaileen baliokidetasun-tauletarako estekak).<br><br>Baliokidetasun-taulak dituzten herrialdeen zerrenda:<br>http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/homologacion_extranjeros_2011/paises_c.pdf<br>(Atzerriko ikasketak tauletan jasotakoekin bat badatoz atzerriko hezkuntza-sisteman aldaketak gertatzeagatik, atzerriko herrialde horrek taulan daudenekin aitortzen dien baliokidetasuna hartzen da kontuan.)<br><br>Zinpeko itzultzaileen zerrenda eguneratuak erkidegoka eta hizkuntzaka:<br>http://www.maec.es/es/menuppal/ministerio/tablondeanuncios/interpretesjurados/Paginas/Intrpretes%20Jurados.aspx | a) Batxilergoko titulua, sarbide-proba edo **baliokideak** (lanerako edo ikasketetarako) edo maila handiagoko titulazioak izatea: :<br>http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/cuadro_equivalencias_titulos_estudios_c.pdf<br><br>b) Prestakuntza behar bezala aprobetxatzeko prestakuntza- edo lan-arloan nahikoa ezaguera izatea. Baldintza hori **modu hauetakoren baten bitartez** egiazta daiteke:<br>➢ Administrazio eskudunek baimendutako ikastetxeek edo prestakuntza-entitateek emandako ziurtagirien bitartez, gutxienez 450 orduko 2. mailako edo goragoko prestakuntza ez-formala dutela dokumentu bidez justifikatzea, ikasi nahi duten Profesionaltasun Ziurtagiriari dagokion Lanbide Arloaren alorren batean.<br>➢ Lan-esperientzia bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak aitortzeko uztailaren 17ko 1224/2009 EDren 11 eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lan-esperientzia eta/edo horri lotutako prestakuntza badutela dokumentu bidez justifikatzea.<br>➢ Eskuratu nahi duten prestakuntzaren maila bera edo handiagoa izanda, arlo berean eta lanbide-eremu berean gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko xedapenak onartutako gaitasun-unitate bat, gutxienez, izatea.<br>➢ Dagokion lanbide-arloarekin lotutako matematikako eta gaztelaniako gaitasun nagusiak badituela zehaztuko duen idatzizko azterketa gainditzea. Gaitasun horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko Gomendioan (2006/962/EE), Etengabeko Ikaskuntzarako gaitasun nagusiei buruzkoan, eta hizkuntzetarako Hizkuntzen Erreferentziako Europako Marko Bateratuan (Lanbidek jarriko du proba eta zentroa arduratuko da gauzatzeaz eta zaintzeaz) ezarritako arloetan inspiratuta daude.<br>c) Eskuratu nahi duten profesionaltasun-ziurtagiriaren eta/edo prestakuntza-moduluaren edo -moduluen maila bereko profesionaltasun-ziurtagiria izatea.<br>d) Lanbide-arlo bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria izatea.<br>e) 25 eta/edo 45 urtez gorakoentzako unibertsitatean sartzeko azterketa gaindituta izatea.<br>f) Plaza libre egotekotan dierazitako eskakizunak betetzen dituzten pertsonak, baina beste autonomia-erkidego mugakide batekoak izan eta prestakuntza-ekintzan matrikulatzeko unean enplegu zerbitzuan izena emana dutenak.<br><br>Prestakuntzako edo lanbideko nahikoa ezaguera izatea justifikatzeko, gaztelerazko, ingelesezko eta frantsesezko dokumentazio atzerritarrak edo Atzerriko Arazoetako eta Lankidetza Ministerioak baimendutako zinpeko itzultzaile batek itzulitakoak onartuko dira: (kontsultatu atzerriko tituluen eta itzultzaileen baliokidetasun-tauletarako estekak).<br><br>Baliokidetasun-taulak dituzten herrialdeen zerrenda:<br>http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/homologacion_extranjeros_2011/paises_c.pdf<br>(Atzerriko ikasketak tauletan jasotakoekin bat badatoz atzerriko hezkuntza-sisteman aldaketak gertatzeagatik, atzerriko herrialde horrek taulan daudenekin aitortzen dien baliokidetasuna hartzen da kontuan.)<br><br>Zinpeko itzultzaileen zerrenda eguneratuak erkidegoka eta hizkuntzaka:<br>http://www.maec.es/es/menuppal/ministerio/tablondeanuncios/interpretesjurados/Paginas/Intrpretes%20Jurados.aspx |